# BOLUNTARIO LINGUISTIKOA



Informazio gehiago edota izena emateko, ondoko zerbitzuetara jo dezakezu:

**ERMUAN**

**Ermuko Udala**

*Immigrazio Zerbitzua (Gizarte Zerbitzuak)*

Erdikokalea, 21

Tel.: 943 17 91 61
943 17 91 62

**DURANGON**

**Durangoko Udala**

*Immigrazio Saila.*

Barrenkalea, 17.

Tel.: 94 603 00 00
(Luz.: 1132)

**hitz egidazu**

**BOLUNTARIO**
LINGUISTIKOA

Programa honek boluntariotza linguistikoa bultzatu nahi du. Horretarako, ahozko gaztelania zein euskara hobetu nahi duten atzerritarrei laguntzeko gertu dauden hemengo bertako lagun bana bilatzean datza asmoa, euren astiaren zatitxoa eskaini diezaieten Euskadiko bi hizkuntza ofizialetan berba-jarioa hobetu dezaten.

Programaren helburua da gaztelaniaz ozta-ozta berbetan dakiten (oinarrizko ezagutza) etorkinei aukera ematea giro natural eta lasaian berriketan aritzeko. Halaber, xedea da euskaraz pixka bat berbetan dakiten (oinarrizko ezagutza) etorkinei aukera ematea bertako lagunekin erlaziogune informaletan euskara ikasi eta hobetzeko.

## Konpromisoa eta iraupena

Gutxieneko konpromisoa 10 ordukoa da: astean behin ordubete, hamar astez.

Programan izena eman ostean, hizkuntza-bikoteak eratuko ditugu ordutegi eta zaletasunei erreparatuta.

Parte-hartzaileak boluntarioak izango dira eta ez dute ordainetan ezer jasoko.

Parte-hartzaileak boluntarioak izango dira eta ez dute ordainetan ezer jasoko.

## Nor izan daiteke boluntario?

Euskaraz edota gaztelaniaz hitz egiten duten adin nagusiko guztiak izan daitezke boluntarioak. Programaren helburua da etorkinek mintzapraktika egitea, giro lasaian eta eguneroko gaiez berbetan. Hargatik, ez da inolako titulurik eskatzen, egokitutako pertsonarekin mintzatzen ordubete ematea astean behin, ez besterik.

## Nor izan daiteke ikasle?

**Gaztelaniaz:** alfabetatze-prozesu batean dabiltzan nagusiak (ahal izanez gero, Helduen Heziketa Iraunkorreko ikastetxeetan, H.H.I.) eta berba pixka bat egiteko gai direnak.

**Euskaraz:** euskalduntze-prozesu batean dabiltzan nagusiak (ahal izanez gero, Euskaltegietan, H.H.I.) eta berba pixka bat egiteko gai direnak.

Orokorrean, oraindino berba-jarioa hobetzeko premia dutenak, hitz egiteari ekiteko lotsa galdu nahi dutenak, harrera-hizkuntzak eguneroko bizimoduan, lantokian eta lagunartean bete-betean txertatzeko.

## Boluntariotza linguistikoari buruzkoinformazio gehiago eskatzeko edota izena emateko, ondoko zerbitzuetara jo dezakezu:

**ERMUKO UDALA**
Immigrazio Zerbitzua
(Gizarte Zerbitzuak).

Erdikokalea, 21
Tel.: 943 17 91 61
943 17 91 62

**DURANGOKO UDALA**
Immigrazio Saila.

Barrenkalea, 17
Tel.: 94 603 00 00
(Luz.: 1132)

DURANGO
Udala • Ayuntamiento

Laguntzaileak:

Cruz Roja – Gurutze Gorria

CEPA
DURANGO HHI

Babesleak:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
GAIETAKO SAILA
*Inmigrazio Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y ASUNTOS SOCIALES
*Dirección de Inmigración*